



PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK COVID-AK IRAUN DAUEN BITARTEAN EGOITZETAN GERTAU DANA ARGITUKO DAUEN TXOSTEN BAT HILEBETEKO EPEAN EGITEKO ESKATU DEUTSIE ALDUNDIARI

- Bizkaiko Batzarrek, Aldundiko teknikariek egin behar daben azterketan, osasun arretaren, norbera babesteko ekipoen, behargin asistentzialen, eta egoiliarren, senideen eta beharginen arteko komunikazioen ganeko datuak sartzeko eskatu dabe.
- Eskaria, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeek alkarregaz aurkeztu daben eta aho batez onetsi dan arauz besteko proposamenaren barruan dago.
- Testuak EH Bilduren hiru zuzenketa-eske jasoten ditu, ratio gehiago sartzeko eta txostena, “Age Platform Europe” erakundeagaz sinatutako hitzarmena garatzen ari dan adituen taldeari bideratzeko.

(Bilbon, 2020ko garagarrilaren 29an). Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako batzordeak aho batez onartu dau gaur, Batzarretako ikasturteko azkenengo saioan, Aldundiko Gizarte Ekintza sailak, Covid-19aren pandemian egoitza izaerako gizarte zerbitzuetako zentroetan gertatu danaren inguruko txosten bat egitea. Txostena “hilebete batean” egon beharko da amaituta, eta Bizkaiko Batzarretako talde guztiei bialdu beharko jake, egoitzetako kudeaketea bultzatzeko eta hobetzeko ekimenen oinarri moduan erabilteko.

Halaber, Bizkaiko Batzarrek, txostena, bere sailean behar egiten daben teknikariek eta profesionalak egitea eskatu deutsie batzordean bertan egon dan Sergio Murillok zuzendutako sailari. Txostenean, gitxienez, “osasun arretaren, norbera babesteko ekipoen, behargin asistentzialen, eta egoiliarren, senideen eta zentroaren arteko komunikazioen ganeko gorabeherak” jaso beharko ditu. Horrez gain, Bizkaiko Batzarrek eskatu dabenez, hobetzeko neurriak jaso behar dira, “akatsak barriro gertatu ez daitezkan”, “ahal danean”, neurri horreen kostuak zenbatetsiz.

Aldundiak Batzarretako taldeei eta Eusko Jaurlaritzari bideratu beharko deutso txostena, EAeko adinekoen egoitzei buruzko garagarrilaren 30eko 126/2020 Dekretua aldatzeko egiten ari dan prozesuari begira, holan, lurraldeko egoitzak hobetzeko hartu beharreko neurriak hartzeko.

Ekimena aurkeztu daben Batzarretako taldeek, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Bereziak (PP), EH Bilduren hiru zuzenketa-eske onartu ditue, talde horreen eretxiz jatorrizko proposamena “aberasten” ebelako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Zuzenketa-eske horreek dirala eta, txostenak beste ratio batzuk be jaso beharko ditu, “egoitzaren ezaugarriak (tamainua, kokapena...), egoitzaren kudeatzaile motea, egoitzetako beharginen ratioak eta beharginen prestakuntzea, egoitzetako osasun arloko zerbitzuak eta beharginak”, “faktore horreek pandemian izan dituen balizko eraginak detektatu ahal izateko”, adierazo dau Arantza Urkaregik. Horrez gain, txostena Gizarte Ekintzako Batzordearen aurrean aurkeztu beharko dau Aldundiak, eta “Age Platform Europe” erakundeagaz sinatutako hitzarmena garatzen ari dan adituen taldeari bialdu.

Halanda be, jatorrizko proposamena sinatu daben hiru taldeek ez dabe onartu Elkarrekin Bizkaia taldeak “erabiltzaileen alkarteen eta senideen, eta baita sindikatuen, erespideak eta oharrak” kontuan hartzeko aurkeztu dauen proposamena. Txostena inplikautako beste sektore batzuek konpartiduteko EH Bilduk egin dauen beste zuzenketa bat be ez dabe onartu, proposatzaileek esan dabenez azterketa horrek izaera “publikoa” eukiko dauelako.

Txostenak “gabeziak eta alderdi indartsuak” jasoko ditu, “etorkizunean egon daitekezan antzeko egoerei” erantzun ahal izateko, esan dau Juan Oterminek (PSE-EE). Gertatutakotik ikasi behar dogu, eragina oso garrantzitsua izan dalako, ustebako proportzinoak izan dituan krisi orokorra dala eta aparteko neurriak hartu behar izan diralako”, gehitu dau Celia Gómezek (EAJ-PNV), eta azterketea “errealidadeagaz bat etorri beharko dala” esan dau; errealidade horrek, momentuz, “Fiskaltzaren zero ikerketa” izten ditu, eta egoitzetan covid-a dala eta hildakoen ehunekoa “%31,9an” dago, “Alemania, Austria, Belgika, Suedia, Frantzia edo Danimarkaren” azpitik.

Oposizinoko taldeen artean, Eduardo Andradek (PP) azpimarratu dauenez, ekimena bere taldearen proposamen batean oinarritzen da. Azkenengo osokoan baztertu egin eben, “adostasun zabala” lortzeko. Arantza Urkaregi (EH Bildu) pozik agertu da, proposamena aurkeztu daben taldeek euren hainbat zuzenketa-eske onartu dituelako, azterketarako “garrantzitsuak” diran ratioak sartzeraz behartzen dauena, adibidez, jatorrizko ekimenean arlo hori “ez zalako nahikoa”. Bere berbetan, helburua “indarrak batzea” da, “egon daitekezan agerraldi gehiagoren aurrean ahalik eta modu egokienean erantzun daigun”.

AHOZKO ERANTZUN-ESKEAK

Horren ostean, Sergio Murillo Gizarte Ekintza diputatuak, EH Bilduk egin dituan erantzun-eske biri erantzun deutse, ezarri dan %75eko mugan ez diralako sartu pandemiak iraun dauen bitartean Eguneko Zentroan plaza barik geratu diran personeren ganean, eta bere sailak, Mendetasun Egoeran dagozan Heldu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Desgaituen Birjinetzeko Unidateko 33 erabiltzailek kalidadeko arreteak jasoteko bere sailak hartu dituan neurrien inguruan.

Mundakako Biotz Sakratu egoitzara eroan diran Birjinetzeko erabiltzaileen kasuan, arreteak "ona" ari da izaten, giza talde "beragaz" eta erabiltzaile gutxiagogaz ari dalako emoten, eta horrek egoerea hobetu egiten dau, ikuspuntu "kuantitatibotik". "Gaiztasunak" "azpiegituretik" sortu dira, igongailua osorik barriztau egin behar izan dalako, denpora tarte horretan "matxura bi" izan ditualako.

Beste alde batetik, Murillok gogoratuaz dau barriro Bizkaiak une honetan 2.022 plaza dituala eguneko zentroetan. Pandemia dala eta agindu ziran %75eko mugen ondorioz, "53 persona" euren zentrorra joan ezinik geratu ziran. Holan, "32" euren etxeetan geratu ziran, laguntza ekonomikoagaz, "2" beste zentro batera joan ziran, "beste persona batek" bajea hartu eban, eta generakoek euren ohiko zentroan lekua egon arte itxoitea erabagi eban, zehaztu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA INSTAN A LA DIPUTACIÓN A ELABORAR EN UN MES UN INFORME QUE ACLARE LO SUCEDIDO EN LAS RESIDENCIAS DURANTE EL COVID

- **La Cámara vizcaína pide que se incluyan en el análisis que hagan técnicos de la Diputación, datos sobre atención sanitaria, equipos de protección individual, personal asistencial y comunicaciones entre residentes, familias y trabajadores.**
- **La petición forma parte de una proposición no de norma presentada conjuntamente por PNV, PSE-EE y PP que ha sido aprobada por unanimidad.**
- **El texto incorpora tres enmiendas de EH Bildu para que se incorporen más ratios y se traslade el informe al grupo de personas expertas creado en el desarrollo del convenio suscrito con "Age Platform Europe".**

(Bilbao, a 29 de julio de 2020). La comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy por unanimidad, en la última sesión parlamentaria del curso, la elaboración de un informe por parte del departamento de Acción Social de la Diputación sobre lo acontecido en los centros de servicios sociales de carácter residencial durante la pandemia del Covid-19. El análisis tendrá que estar finalizado "en un mes" y deberá de ser remitido a todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína para que sirva como base a iniciativas de impulso y mejora de la gestión en las residencias.

Asimismo, la Cámara vizcaína insta al departamento dirigido por Sergio Murillo, presente en la comisión, a que el informe sea realizado por los propios técnicos y profesionales adscritos a su departamento, debiendo incluir, al menos, "incidencias sobre atención sanitaria, equipos de protección individual, personal asistencial y comunicación entre residentes, familiares y centro". El Parlamento de Bizkaia pide, además, que se incluyan medidas de mejora "para que los errores no se repitan en el futuro", estimando, "cuando sea posible", los costes de dichas medidas.

La Diputación tendrá que trasladar el informe tanto a los grupos junteros como al Gobierno vasco, de cara al proceso que se está llevando a cabo de modificación del Decreto 126/2020, de 30 julio de residencias de personas mayores en el ámbito de la CAPV, y adoptar así las medidas necesarias para la mejora de los centros residenciales del territorio.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Los grupos junteros proponentes de la iniciativa, Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Mixto (PP), han aceptado tres enmiendas de EH Bildu que “enriquecían”, según estas formaciones, la propuesta original. A través de ellas, el informe deberá de incluir otros ratios como “las características de la residencia (tamaño, ubicación,...), el tipo de gestor de la residencia, los ratios de personal de las residencias y su formación, los servicios sanitarios y el personal de las residencias”, de cara a “detectar los posibles efectos de estos factores en la pandemia” ha apuntado Arantza Urkaregi. Asimismo, el informe deberá presentarse ante la Comisión de Acción Social por la Diputación y ser remitido al grupo de personas expertas creado en el desarrollo del convenio suscrito con "Age Platform Europe".

Sin embargo, las tres formaciones que firmaban la proposición original, no han aceptado una enmienda de Elkarrekin Bizkaia para que se tuvieran en cuenta “los criterios e indicadores de las asociaciones de usuarios y familiares, así como de los sindicatos”. Tampoco han aceptado otra corrección de EH Bildu para compartir el informe con otros sectores implicados, ya que dicho análisis va a tener carácter “público”, según los proponentes.

El informe incorporará “déficits y fortalezas” de cara a responder “a futuras situaciones similares”, ha dicho Juan Otermin (PSE-EE). “Debemos aprender de lo sucedido ya que la afección fue importante, fruto de una crisis global de proporciones inimaginables que obligó a tomar medidas extraordinarias”, ha añadido Celia Gómez (PNV), quien ha apuntado que el análisis deberá de “ajustarse a la realidad”; una realidad que, de momento, deja “cero investigaciones de la Fiscalía” y un porcentaje de fallecidos por covid en las residencias que se sitúa en el “31,9%, por debajo de países como Alemania, Austria, Bélgica, Suecia, Francia o Dinamarca”.

Entre la oposición, Eduardo Andrade (PP) ha destacado que la iniciativa parte de una iniciativa de su grupo que fue retirada en el último pleno ordinario para llegar a un “consenso amplio”. Por su parte, Arantza Urkaregi (EH Bildu) ha mostrado su satisfacción porque los grupos proponentes han aceptado incorporar buena parte de sus enmiendas, como la que obliga a incorporar ratios “importantes” en el análisis, ya que en la iniciativa original “no era suficiente”. Se trata, según ella, de “unir fuerzas, para que ante posibles rebrotes, respondamos de la mejor manera posible”.

PREGUNTAS ORALES

A continuación, el diputado de Acción Social, Sergio Murillo, ha respondido a dos cuestiones planteadas por EH Bildu en relación a las personas que se han quedado sin plaza de Centro de Día durante la pandemia por no haber entrado



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

en el límite del 75% establecido, y a las medidas que ha adoptado su departamento para que 33 usuarios de la Unidad de Discapacitados Adultos Dependientes de Birjinetxe recibieran una atención de calidad.

En el caso de los usuarios de Birjinetxe trasladados a la residencia Biotz Sakratu de Mundaka, la atención está siendo “buena”, ya que se mantiene la misma con el “mismo” equipo humano y con menos usuarios, lo que mejora la situación desde el punto de vista “cuantitativo”. Las “dificultades” han sobrevenido por la “infraestructura”, ya que se ha tenido que hacer una reforma integral del ascensor, ya que ha sufrido “dos averías” en este tiempo.

Por otro lado, Murillo ha vuelto a recordar que Bizkaia cuenta actualmente con 2.022 plazas en centros de día. Debido a las restricciones del 75% ordenadas por la pandemia, “53 personas” no pudieron ir al mismo centro debido a estas restricciones. Concretamente, “32” se quedaron en casa con ayuda económica, “2” en otro centro, “otra persona” se dio de baja, y los demás decidieron esperar hasta que hubiera plaza en su centro habitual, ha detallado.